

## Lan deialdia:

### Parte-Hartze teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

#### ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua Donostian edo Gasteizen, baina lan eremua Euskadi osoa izango da.
- Jardunaldi osoko lanaldia.
- Urtean 27.126€-ko (soldata gordina).
- EGKren barne hitzarmenak araututako lanpostu bat eta EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean.
- Lantalde gazte eta dinamiko batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal gazteriaren parte-hartzearen alde lan egitea.

#### LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan arloari dagozkion proiektuak eta ekimenak diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu eta koordinatzea.
- Erakundearen lan-arlo guztiekin ekintzak koordinatzea.
- Elkarte, eragile, talde eta gazte parte-hartzaileekin harreman zuzena mantentzea eta parte-hartzearekin lotutako proiektu eta prozesuak garatzea.
- Administrazioaren Gazte Planak eta gazteria politikak garatzeko prozesuetan parte hartzea.
- EGK-ko arlo teknikoetan zeharkako gaien lanketa sustatzea.
- Erakunde Publikoekin bitartekaritza eta elkarlana burutzea (Eusko Jaurilaritza, aldundiak, udalak, eta beste edozein).
- Gizarte eragileekin elkarlana bultzatu eta garatzea.
- Elkarlekuak eta gazteek garatzen dituzten proiektuak/ekimenak ezagutzea eta haietan parte-hartzea.
- Dagokionean lan-arloko gaiei buruzko adierazpenak eta analisi publikoak egitea.
- Elkarlekuarekin harreman zuzena izatea.

#### ESKATZEN DA:

- 30 urte baino gutxiago izatea.
- Euskal elkartegintzaren, gizarte mugimenduaren eta parte-hartze modu ezberdinen errealitatearen ezagutza izatea.
- Gazteen, eta oro har, gizartearen errealitatearen ezagutza izatea.
- Parte-hartze prozesu, egitasmo eta esperientzia ezberdinak ezagutu eta beraietan parte hartu izana.
- Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko maila altua (EGA, HABE 3...).
- Gizarte arloko goi ikasketak izatea, edo, beste esparruetako ikasketak izanda ere, gizarte gaietan espezializatu izana (bereziki parte-hartzearekin lotutako ikasketak gehigarriak izatea)..
- Lantaldeak eta eztabaida taldeak dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna eta esperientzia. Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- Malgutasuna: ordutegi eta mugikortasun geografikoa.
- Lanean hasteko berehalako prestutasuna izatea.

## BALORATUKO DA:

- Lantaldean aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta ardurak hartzeko gaitasuna izatea.
- Ekimen propioak autonomiaz garatzeko gaitasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Hainbat eginbehar berean gauzatzeko gaitasuna.
- Ingelesa eta beste hizkuntza batzuen ezagutza.
- Informatika-ofimatikaren ezaguerak.
- Elkarte ezberdinetan parte hartze aktiboa (kirol munduan, begirale munduan...)
- Jendaurrean hitz egiteko gaitasuna.

## HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO:

- Epea: urriaren 12a arte.
- Sartu eta bete [Datu babesaren politika](#) (derrigorrezkoa).
- Curriculum eta motibazio gutuna bidali [egk@egk.eus](mailto:egk@egk.eus) helbidera. Gaian “Partaidetza Teknikaria” idatzi.
- Curriculum dokumentua honela izendatu: IzenAbizenak.CV\_PARTAIDETZA.pdf/doc.
- Motibazio Gutuna honela izendatu: IzenAbizenak.KARTA\_PARTAIDETZA.pdf/doc.

## Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

Motibazio gutuna eta curriculumen bidalketa, urriaren 12a arte.  
Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, urriaren 15an.  
Froga Idatzia Bilbon, urriaren 18an  
Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, urriaren 20an.  
Elkarrizketa eguna, urriaren 22an.  
Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, urriaren 25ean.  
Lanean hasteko data, urriaren azken astean.